## BERASTEGIKO UDALA

*Iragarkia*

Foru aldundiak eginiko aurtengo ekitaldiari dagokion udalerri honetako Iharduera Ekonomikoen gaineko zergaren matrikula jaso da eta jendeari ezagutzera ematen zaio, Iharduera Ekonomikoen gaineko zergari buruzko Testu Bategina onartuz, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretuko Arauemaileko 17.artikuluko 2. zenbakian (abuztuaren 31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN) eta aipatu zergaren kudeaketari dagokionean zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuko 2. artikuluko 3. zenbakian (26ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN) ezarritakoa betez, ondoko arau hauen arabera:

*a) Agerian aurkitzen den lekua:* Idazkaritza-Kontuhartzailetzan.

*b) Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea:* 15 lanegunetakoa, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den ondorengo lanegunetik zenbatzen hasita.

*c) Errekurtsoak aurkezteko organoa:* Gipuzkoako Foru Aldundia, honi eskuordetu baitzaio Zergaren kudeaketa.

*d) Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Berastegiko Udalaren zein Foru Aldundiko Sarrera Erregistroan, bulego lanorduetan.

Berastegi, 2008ko uztailaren 1a.—Alkatea.

(51141) (8339)

## AYUNTAMIENTO DE BERASTEGI

*Anuncio*

Recibida la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas de este término municipal correspondiente al actual ejercicio, confeccionada por la Diputación Foral, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 17.2 del Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del 31 de agosto) y artículo 2.3 del Decreto Foral 80/1991, de 19 de noviembre (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del 26) por el que se regulan determinados aspectos en relación con la gestión de dicho Impuesto, se expone a información pública, conforme a la siguientes reglas:

*a) Lugar de exposición:* En las Dependencias de Secretaría-Intervención.

*b) Plazo para examinarlo y en su caso para interponer reclamaciones:* 15 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*c) Órgano ante el que se recurre:* Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, en quien se ha delegado la gestión tributaria del Impuesto.

*d) Lugar de presentación de las reclamaciones:* Registro de Entrada del Ayuntamiento y/o Registro de Entrada de la Diputación Foral, en horario de oficina.

Berastegi, a 1 de julio de 2008.—El Alcalde.

(51141) (8339)

## ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Elgoibarko Udalak, 2008ko apirilaren 24an egindako ohiko Udalbatzan, Elgoibarko Udal Planeamenduko Aholku Kontseiluari dagokion Araudia lehendabizikoz onartzea erabaki zuen.

Toki-erregimeneko Oinarrien arautzailea den 7/1985 Legeko 49. Artikuluaren arabera, informazio publikoko 30 eguneko epea zabaldu da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hala edozein pertsona fisiko edo juridikok Udaletxeko Idazkaritzan espedientea aztertzeko aukera izan dezan eta, kasu bada, egokitzat jotzen dituen alegazio eta iradokizunak aurkez ditzan.

Dena den, alegazio edo iradokizunik izango ez balitz, Araudia behin betiko onartutzat joko da, erabaki berria hartu beharrik izan gabe.

Elgoibar, 2008ko uztailaren 8a.—Alfredo Etxeberria Murua, Alkatea.

(2331) (8313)

### ELGOIBARKO UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU KONTSEILUARI DAGOKION ARAUDIA

### ZIOEN AZALPENA

Aginte publikoei dagokie herritar guztiei, norbanakoen nortasunaren bilakaera librea sustatuko duen tresna gisa, bizimodu politikoan, ekonomikoan, kulturalean eta sozialean parte hartzeko bideak jartzea. Izan ere, herritarrek arlo publikoan, zuze-

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Elgoibar, en sesión Plenaria ordinaria celebrada el día 24 de abril de 2008 aprobó Inicialmente el Reglamento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Elgoibar.

De acuerdo con el artículo 49 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se abre un período de 30 días de información pública, contados a partir de día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, con el objeto de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar el expediente en la Secretaría del Ayuntamiento y presentar, en su caso, las alegaciones y sugerencias que estime oportunas.

No obstante, de no producirse alegación ni sugerencia alguna el Reglamento se tendrá por aprobado definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Elgoibar, a 8 de julio de 2008.—El Alcalde, Alfredo Etxeberria Murua.

(2331) (8313)

### REGLAMENTO DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE ELGOIBAR

### EXPOSICION DE MOTIVOS

Corresponde a los poderes públicos facilitar la participación de toda la ciudadanía en la vida política, económica, cultural y social como instrumento que propicie el libre desarrollo de la personalidad que es el fundamento del orden político y de la paz

nean nahiz ordezkarien bidez, parte hartzeko duten eskubidea baita orden politikoaren eta gizarteko bakearen oinarria. Horregatik, herritarren partaidetza esparru guztietan sustatu eta agerian utzi behar da, bai norbanakoei, bai gizartea osatzen duten era guztietako taldeei dagokionean.

Herriko bizimoduaren alorrean, partaidetzarako printzipio nagusi hau Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituzten Legearen 69. artikuluan jasotzen da.

Hirigintzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, bere printzipioen artean, gizartearen kontzertazioari eta herritarren partaidetzari buruzko printzipioak jasotzen ditu. Halaber, Plan Nagusiak onartzeko eskumen propioak zein eskuordetutako eskumenak dituzten udalerriei Udal Planeamendurako Aholku Batzordea osatzeko obligazioa ezartzen die. Batzordearen helburu nagusiena da hirigintzako planak gizartearen adostasunarekin onartzea. Horretaz gain, Aholku Batzorde honek, beste helburu batzuk ere baditu: Toki entitateari, antolamendu urbanistikorako dituen tresnarik garrantzitsuenak formulatzen eta onartzen laguntzea, eta bereziki, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren erabakiekin zerikusia duten tresnak formulatu eta onartzea. Horri gehitu behar zaio, herritarrek hirigintza arloko informazioa jasotzeko eskubidea dutela, eta horretarako lurraldearen eta sektorearen antolamendurako tresnen bidez, beharrezkoa dela udal planeamendu urbanistikoaren osotasuna eta koherentzia bermatzea.

Bestalde, aipatutako Legearen 110. artikuluaren arabera, Aholku Batzordea sortu eta haren oinarrizko ezaugarriak definituko dituen Araudi bat onartu behar da. Udal bakoitzari dagokio Araudi hori formulatzea, tramitatzea eta onartzea. Organo hau Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 20.1 artikuluan jasotako organoen osagarri izango da. Era berean, 20. artikuluaren 2. atalak xedatzen du, autonomia erkidegoek, tokiko araubideari buruzko legeen bitartez, arestian aipatutako oinarrizko organoaren organizazio osagarri bat ezarri ahal izango dutela.

Hori horrela izanik, Araudi honen bidez, Elgoibarko Udalak, Udal Planeamendurako Aholku Batzordearen sorrera eta funtzionamendua arautu nahi ditu. Aholku Batzordea eztabaidarako organo kolegiatu aholku-emailea izango da, hirigintzako planeamenduan herritarren partaidetza bideratuko duena. Batzordeak, horretarako, honako irizpide hauek izango ditu kontuan: Hirigintzako ondarea babestea; ingurumen, gizarte, kultura eta ekonomia alorretako baloreak babestea, beti ere, udalerriaren arrazoizko garapen iraunkor baten esparruan.

Araudi honen bidez, honako arlo hauek ere zehaztuko dira: Aholku Batzordearen oinarrizko egitura, funtzioak eta araubide juridikoa, betiere, batzordea organo kolegiatua dela kontuan izanik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluarekin bat, honako Araudi hau eman da:

## I. KAPITULUA

## UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK

*1. artikulua. Udal Planeamenduaren Aholku Batzordearen sorrera.*

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen (aurrerantzean 2/2006 Legea) 110. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, araudi honen bidez Elgoibarko Udal Planeamendurako Aholku Batzordea sortzen eta arautzen da.

social el derecho de la ciudadanía a participar en los asuntos públicos bien directamente bien por medio de representantes, debe promoverse y expresarse en todos los ámbitos, tanto en referencia a las personas individualmente consideradas, como respecto a los grupos de diversa naturaleza que la integran.

En el ámbito de la vida local, este principio general de participación ciudadana viene expresamente recogido en el artículo 69 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

En materia urbanística, la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, recoge entre sus principios el de concertación social, el de participación ciudadana y el de información pública, y establece para aquellos municipios con competencia propia o delegada para la aprobación definitiva de los Planes Generales la obligación de constituir un Consejo Asesor del Planeamiento Municipal como órgano local de carácter consultivo y deliberante, cuyo fin es llegar a concertar socialmente los planes urbanísticos. Este Consejo Asesor tiene por objeto coadyuvar a la entidad local en la formulación y aprobación de sus principales instrumentos de ordenación urbanística y, más específicamente, en relación con las determinaciones de su Plan General de Ordenación Urbana. Ello se suma al derecho a la información urbanística a través del aseguramiento de la integridad y de la coherencia del planeamiento urbanístico municipal respecto a los instrumentos de ordenación territorial y sectorial.

El artículo 110 de la citada Ley remite, por otra parte, la constitución y definición de las características básicas del Consejo Asesor a la aprobación de un Reglamento que cada Ayuntamiento debe formular, tramitar y aprobar. El carácter de este órgano es el de complementario a los básicos establecidos en los artículos 20.1 de la ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, en cuyo apartado 2 dispone que las comunidades autónomas podrán establecer a través de leyes sobre el régimen local una organización complementaria a la básica antes citada.

Con este objetivo, el Ayuntamiento de Elgoibar, mediante el presente Reglamento se propone regular la creación y funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Elgoibar como órgano colegiado, consultivo y deliberante, que permitirá articular la participación social en la planificación urbanística desde criterios de protección del patrimonio urbanístico y de los valores medio-ambientales, sociales, culturales y económicos en un marco de desarrollo racional y sostenible del municipio.

A través de este Reglamento se determinan también aspectos tales como la estructura básica, funciones y régimen jurídico del Consejo Asesor, atendiendo a su naturaleza de órgano colegiado de los previstos en el artículo 22.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En consecuencia, de acuerdo con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se dicta el presente Reglamento.

## CAPITULO I

## NATURALEZA Y FUNCIONES DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 1. Creación del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal.*

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, en adelante Ley 2/2006, mediante el presente Reglamento se crea y regula el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Elgoibar.

2. Eratzen den Aholku Batzordea, informaziorako; eztabaidarako gunea izango da, eta aldi berean, hirigintzako gaien esparruan, Udalaren, gizarte eragileen, eragile ekonomikoen, ingurumen arloko eragileen eta herritarren arteko adostasunetarako gune iraunkorra.

3. Elgoibarko Udal Planeamenduaren Aholku Batzordea tokiko organo osagarri eta kolegiatua da, aholkuak ematen dituen eztabaida-batzordea. Batzorde hau Udalerriaren antolamenduaren plangintzari dagokion edozein aldaketa proposatzeko, tramitatzeko eta onartzeko beharrezkoak diren gizarte kontzertaziorako funtzioak betetzeko sortu da, 2/2006 Legearen 59. artikuluan jasotako sailkapenaren arabera.

*2. artikulua. Atxikitzea.*

Udal Planeamenduaren Aholku Batzordea, hirigintza arloko eskumena duen Udaleko sailari atxikiko zaio.

*3. artikulua. Izaera Juridikoa.*

Udal Planeamendurako Aholku Batzordea, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 22. artikuluan eta hurrengoetan araututako organo kolegiatu gisa eratuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108-110 artikuluetan, eta horrekin bat datozen artikuluetan, aurreikusitako berezitasunak izango dituzte.

*4. artikulua. Eginkizunak eta xedeak.*

1. Udal Planeamenduaren Aholku Batzordeak honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Udalerriko egituraren planeamenduari buruz, Udalak aukeratzen dituen irizpideen eta jarduera ildoen berri izatea, eta horiei buruzko txostenak egitea.

b) Halaber, Osoko Udalak hala eskatzen badu, hirigintzako antolamenduaren arloko beste edozein plangintzari edo antolamendurako beste edozein tresnari buruzko informazioa eskatu, jaso edo eman ahal izango du. Batik bat, honako plan eta tresna hauek izango dira kontuan: Estrukturalak izan gabe, bereziki babes daitezkeen elementuei dagozkienak; udalerriko Hiri Ondareen Katalogoan sartuta daudelako, eta naturaren, ingurumenaren edo paisaiaren aldetik balio handikoak direlako.

c) Halaber, hirigintzaren arloan, Udalaren informazioa jasoko du, eta informazio hori helaraziko die horrekin zerikusia izan dezaketen herri erakundeei.

d) Udalari aholkua eta laguntza emango dio, herritarren partaidetzari eta herriaren iraunkortasunari buruz egiten diren azterlanetan, txostenetan eta proposamenetan.

2. Hirigintzako Planeamenduaren Aholku Batzordeak hartzen dituen erabakiak, egiten dituen gomendioek edo proposamenek, eskaintzen dituen aukerek edo proposamenek, gomendio izaera izango dute (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 109-3 artikuluak dioenaren arabera). Horretaz gain, horiek guztiek errespetatu egin beharko dituzte, arlo horietan, beste administrazio batzuek dituzten eskumenak, baldin eta Udalek eskumen horiek ezinbestean onartu behar badituzte.

Batzordeak Udalari aurkeztuko dizkion proposamenen edo aukeren kasuan, planeamenduari buruzko agiria behin betiko onartzeko ebazpenean kontuan hartzen ez bada, behar bezala arrazoitutako erantzuna eman beharko da.

2. El Consejo Asesor se constituye como espacio permanente de información, debate y consenso del Ayuntamiento, de los agentes sociales, económicos, ambientales y de la ciudadanía en general, en relación con la materia urbanística.

3. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Elgoibar es un órgano local complementario y colegiado de carácter consultivo y deliberante creado para el cumplimiento de las funciones de concertación social en relación con el procedimiento de formulación, tramitación y aprobación de toda modificación o revisión del planeamiento de la ordenación estructural del municipio conforme a la clasificación contenida en el artículo 59 de la Ley 2/2006.

*Artículo 2. Adscripción.*

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se adscribe al área municipal competente en materia de urbanismo.

*Artículo 3. Naturaleza Jurídica.*

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se configura como un órgano colegiado de los regulados en los artículos 22 y siguientes de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, con las especialidades previstas por los artículos 108 a 110 y concordantes de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

*Artículo 4. Funciones y fines.*

1. Corresponderá al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal el desarrollo de las siguientes funciones:

a) Conocer cuantos estudios, programas, directrices y líneas de actuación se elaboren por el Ayuntamiento en materia del planeamiento estructural del municipio así como emitir informes sobre los mismos.

b) Asimismo, el Consejo podrá recabar, conocer y emitir informe de cualquier otro plan o instrumento de ordenación urbanística si el Pleno municipal así lo solicita. En particular, se señalan aquellos planes e instrumentos de ordenación que no siendo estructurales afecten a elementos especialmente protegibles por estar incluidos en el Catálogo del Patrimonio Urbanístico del municipio o por sus valores naturalísticos, medioambientales, paisajísticos, etc.

c) Recibir información municipal en materia de urbanismo y difusión de la misma a las entidades ciudadanas que pudieran ser implicadas.

d) Colaboración y asesoría al Ayuntamiento en la realización de estudios y emisión de informes y propuestas sobre la participación ciudadana y la sostenibilidad urbana.

2. Las decisiones, recomendaciones, alternativas o propuestas del Consejo Asesor de Planeamiento urbanístico tendrán la consideración de recomendaciones (de acuerdo con el art. 109-3 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco) para los órganos de Gobierno Municipal y respetarán las competencias que en estas materias tengan otras administraciones y deban ser asumidas obligatoriamente por los Ayuntamientos.

Las propuestas o alternativas presentadas por el Consejo ante el Ayuntamiento y que no sean atendidas en la resolución de aprobación definitiva del documento de planeamiento, deberán ser contestadas motivadamente.

*5. artikulua. Txostenak egitea.*

1. Udal Planeamendurako Aholku batzordeak, ezinbestean, informatu beharko du lehendabizikoz formulatzen diren espedienteen kasuan, edo planeamendu estrukturalaren edozein tresna osorik edo zatika berrikusi behar bada, edo tresna horiek puntualki aldatu behar badira.

a) Lehen aldiz formulatutako espedienteen kasuan, edo planeamendu estrukturalaren edozein tresna osorik edo zatika berrikusi behar bada, edo tresna horiek puntualki aldatu behar badira, Udal Planeamendurako Aholku batzordeak, nahitaez, txostena egin beharko du, aurrerakinari buruzko agiriaren edukiaren eta lehendabizikoz onartu behar diren agirien gainean.

b) Plangintza estrukturalaren aldaketa puntualei dagozkien espedienteetan, nahitaezkoa izango da jendaurrean jarriko den lehenengo dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea.

2. Era berean, zinegotzi ez diren kideen herenak hala eskatzen badu, Aholku Batzordeak hirigintza arloko beste plan eta tresna batzuei buruzko informazioa jaso ahal izango du bere txostena egin ahal izateko; eta horretaz gain, informazio hori eman ahal izango die kideei. Txostena egiteko epea bat etorriko da espediente hori behin- behingoz onartu eta jendaurrean jartzeko epearekin.

3. Espedientea jendaurrean jarri aurretik, Udalak artikulu honen 1. atalean aipatutako espediente guztien hasieraren berri emango die, ofizioz, Aholku Batzordeko kideei.

4. Aholku Batzordeak ezinbesteko txostenak egiteko duen epea eta Aurrerakina eta planeamenduaren behin-behineko aurrerapena jendaurrean jartzeko epea bat etorriko dira. Txostenak epearen barruan egiten ez badira, txosten horiek onartzeko ardura duten udal-organoek ahalmena izango dute espedienteak tramitatzen jarraitzeko.

## II. KAPITULUA

## UDAL PLANEAMENDUAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

*6. artikulua. Osaera eta Kideak.*

1. Aholku batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Udaleko alkatea. Alkatea Aholku Batzordearen buru izango da.

b) Hirigintza alorrean eskumena duen Zinegotzia. Hau batzordeko buruaren ordezko izango da. Alkateak berak kargu hau baldin badu, ordezko bat izendatu beharko du, Hirigintzako Batzorde Informatzailea osatzen duten gainerako batzordekideen artetik.

c) Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek ordezkari bana izango dute.

d) Agenda 21eko ordezkari bat, zinegotzia ez dena.

e) Industria sarearen ordezkari bat.

f) Herritarren partaidetzarako taldearen bi ordezkari.

g) Kirol Patronatuko ordezkari bat.

h) DEBEMENeko ordezkari bat.

2. Idazkaria: Elgoibarko Udalekoa izango da, edo honek eskuordetutako pertsona. Idazkariak, Batzordeburuaren gidaritza eta aholkularitza pean, laguntza eta aholkua emango dizkio Aholku Batzordeari.

*Artículo 5. Emisión de informes.*

1. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal informará con carácter preceptivo en los expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual de cualquier instrumento del planeamiento estructural.

a) En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial del planeamiento estructural, será preceptiva la emisión de informe del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal respecto al contenido del documento de Avance, y respecto a los documentos de aprobación inicial.

b) En los expedientes referentes a la modificación puntual del planeamiento estructural será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del primer documento que se someta a información pública.

2. Asimismo, el Consejo Asesor, cuando así lo soliciten al menos la tercera parte de sus miembros, no concejales, podrá recabar para su informe el conocimiento de otros planes e instrumentos de ordenación urbanística e informarlos. En este supuesto, el plazo para la emisión de informe coincidirá con el plazo de información pública del citado expediente, tras su aprobación inicial.

3. El Ayuntamiento informará de oficio a los miembros del Consejo Asesor del inicio de cualquier expediente de los relacionados en el apartado 1 del presente artículo antes de someterlo a información pública.

4. La emisión de los informes preceptivos del Consejo Asesor deberá realizarse durante el plazo de información pública del Avance y de aprobación inicial del planeamiento. La no emisión en plazo de los citados informes habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación para proseguir con la tramitación de los expedientes.

## CAPITULO II

## COMPOSICION DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 6. Composición y miembros.*

1. El Consejo Asesor estará compuesto por los siguientes miembros:

a) El Alcalde o la Alcaldesa del Ayuntamiento, que ostentará la Presidencia del Consejo.

b) El Concejal o la Concejala delegado/a del Área de Urbanismo, que ostentará la Vicepresidencia del Consejo. En caso de que la propia Alcaldía ostente esta delegación, deberá nombrar un sustituto de entre los concejales-miembros de la Comisión Informativa de Urbanismo.

c) Un representante por cada uno de los grupos políticos municipales.

d) Un representante no corporativo de Agenda 21.

e) Un representante del tejido industrial.

f) Dos representantes del grupo de participación ciudadana.

g) Un representante del patronato de deportes.

h) Un representante de DEBEMEN.

2. Secretario: El secretario del Ayuntamiento de Elgoibar, o persona en la que se delegue. Al Secretario le corresponderá la asistencia y asesoramiento al Consejo Asesor, bajo la dirección del Presidente.

3. Udal Planeamenduaren Aholku Batzordeko kideak Alkatearen Dekretu bidez izendatuko dira, eta Osoko Bilkurari horren berri emango zaio. Industria sarearen ordezkaria Makina-Erreminta Ekoizleen elkarteak eta gainerako erakundeek proposatutako pertsona baldin bada, izendapena horiek proposatuta egingo da (herritarren partaidetzarako taldea eta DEBEMEN).

4. Batzordeburuak, halaber, teknikariak edo adituak izendatu ahal izango ditu, Aholku Batzordeko kideei txostenean aztertu behar diren gaiei buruzko aholkua emateko. Batzordeko bileretan parte hartuko dute, hala eskatzen zaienean. Hitz egiteko aukera izango dute, baina ez dute botoa ematerik izango.

5. Aholku Batzordeko kide direnen agintaldia udal hauteskundeekin batera iraungiko da. Hala eta guztiz ere, batzordekideak, jarraian zehaztuko diren arrazoiengatik kargugabetu ahal izango dira:

a) Batzordekideak, idatziz, karguari uko egiten badio.

b) Batzordekideren bat, epai judizial irmoaren bidez, kargu publikoa betetzeko ezgaitzen badute.

c) Araudi honetan ezarritako betebeharrak behin eta berriz betetzen ez direnean.

d) Antolatzaileek edo proposatzen duten entitateek batzordekideren bat kargutik kentzeagatik.

e) Heriotza gertatuz gero.

5. Batzordekideek, utzi egingo diote kide izateari, beraien kargua galtzen dutenean.

6. Hutsik gelditu diren karguak hornitzeko, izendapenetarako erabili den forma bera erabiliko da.

*7. artikulua. Ordainsariak.*

Aholku Batzordeko kideek, haien eginkizunak betetzeagatik, ez dute inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango

III KAPITULUA

ANTOLAKETAREN EGITURA

*8. artikulua. Batzordearen Antolaketa.*

Udal Planeamenduaren Aholku Batzordearen funtzionamendurako organoak honako hauek dira:

a) Batzordeburua eta batzordeburu ordea.

b) Osoko Bilkura.

c) Idazkaritza.

*9. artikulua. Batzordeburua eta batzordeburu ordea.*

1. Udal Planeamenduaren Aholku Batzordearen buruzagitza, Udalbatzaren buru den Alkateari dagokio.

Lehendakaria ez badago, edo berak espresuki kargua eskuordetzan eman badu, Batzordeburu ordeak beteko du Batzordeburuaren kargua.

2. Honako hauek dira Batzordeburuaren eginkizunak:

a) Batzordearen eskumen peko gaietan indarrean dagoen legedia beteko dela bermatzea.

b) Batzordearen helburuak beteko direla ziurtatzea.

c) Batzordearen Osoko bilkurak hartzen dituen erabakiak betetzeko ardura izatea.

d) Erakundeetan, entitateetan eta batzordeetan Aholku Batzordearen ordezkaritza izatea. Alkateak Batzordearen Osokoari eman ahal izango dio ordezkaritza horren eskumena.

3. Los componentes del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal serán nombrados mediante Decreto por la Alcaldía y dará cuenta del mismo al Pleno. En el caso del miembro referente al tejido industrial será la persona que proponga la Asociación de fabricantes de maquina-herramienta y del resto de las entidades, el nombramiento se efectuará a propuesta de las mismas (grupo participación ciudadana y DEBEMEN).

4. El Presidente podrá también designar técnicos o expertos para que asesoren a los miembros del Consejo en las materias que han de ser objeto de informe y que acudirán a las sesiones del Consejo con voz y sin voto, cuando así se requiera.

5. La extinción del mandato de las personas que ostenten el carácter de miembros del Consejo Asesor coincidirá con la celebración de elecciones municipales. No obstante, podrán ser cesadas también por las siguientes causas:

a) Por renuncia expresa formalizada por escrito.

b) Por declaración de incapacidad o inhabilitación para el desempeño de cargo público por sentencia judicial firme.

c) Por incumplimiento reiterado de los deberes expresadas en el presente Reglamento.

d) Por remoción (privación de cargo) de la organización o entidades proponentes.

e) Por fallecimiento.

5. En caso de las personas que ostenten el carácter de miembros por razón de su cargo, cesarán cuando pierdan esa condición.

6. Las vacantes se proveerán en la misma forma establecida para su nombramiento.

*Artículo 7. Remuneración.*

Las personas que ostenten del carácter de miembros del Consejo Asesor no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

CAPITULO III

ESTRUCTURA ORGANIZATIVA

*Artículo 8. Organización del Consejo.*

Los órganos de funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal son:

a) La Presidencia y la vicepresidencia.

b) El Pleno.

c) La Secretaría.

*Artículo 9. La Presidencia y la Vicepresidencia.*

1. La Presidencia del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal corresponderá al Alcalde o Alcaldesa - Presidente de la Corporación municipal.

En caso de ausencia del Presidente, o por delegación expresa del mismo, la presidencia será ejercida por la Vicepresidencia.

2. Corresponde a la Presidencia las funciones de:

a) Garantizar el cumplimiento de la legislación vigente en el ámbito de las competencias del Consejo.

b) Asegurar el cumplimiento de los fines del Consejo.

c) Velar por el cumplimiento de los acuerdos adoptados por el pleno del Consejo.

d) Ejercer la representación del órgano asesor en instituciones, entidades y comisiones pudiendo delegar en el pleno del Consejo dicha representación.

e) Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdiak erabakitzea eta bilkuretako gai zerrenda zehaztea.

f) Batzordearen Osoko Bilkurak onartzen dituen eskariak, errekerimenduak eta jarduerak dagokion udal-organora bideratzea.

g) Aztertzen diren gaien arabera, egoki iritzitako pertsonak Batzordearen Osoko Bilkurara eta lan-batzordeetara gonbidatzea. Pertsona horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez dute botoa ematerik izango.

h) Batzordeburuari berez dagozkion eginkizunak betetzea.

i) Esleitzen zaizkion bestelako eginkizunak.

3. Batzordearen bileretan Batzordeburuak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Bileretako buru izatea, eztabaidetan moderatzaile aritzea, bilera ondo bideratzeko ardura izatea, eta bidezko arrazoiak tarteko, bilerak bertan behera uztea.

b) Bozketaren batean berdinketa izanez gero, kalitatezko botoaren bidez erabakia hartzea.

4. Hirigintza Batzordeko Zinegotzi Ordezkariak izango du Batzordeburu ordearen kargua, baldin eta Alkateak kargu berori badu.

Batzordeburu ordea falta bada, edo espresuki bere kargua eskuordetzan eman badu, bere kargua Batzordekidea den Korporazioko zinegotzi batek beteko du.

Batzordeburu ordearen eginkizun nagusia izango da Batzordeburuaren ordez aritzea, hura ez dagoenean, kargua hutsik geratzen denean, edo batzordeburua gaixorik denean.

*10. artikulua. Osoko Bilkura.*

1. Udal Planeamendurako Aholku Batzordearen organo erabakitzaile gorena da. Osoko Bilkura araudi honetako 6 artikuluan aipatzen diren kideek osatuko dute. Horietaz gain, Osoko Bilkuran idazkari bat ere izango da. Idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du botorik eman.

2. Hona hemen Osoko Bilkuraren funtzioak:

a) Batzordearen lan-programa egitea, eta bere jardueren artean lehentasunak ezartzea.

b) Eskatutako gai guztiei buruzko iritzia ematea.

c) Udalaren Korporazioari bere jarduerari buruzko argibideak eta aholkuak ematea.

d) Hala badagokio, Osoko Bilkurak egin duen aurreko bileraren Akta onartzea, eta hurrengo bilera-deian jasoko diren aztergaiak proposatzea.

e) Batzordeburuaren eskariz, organo bereziek egindako txostenen berri izatea.

f) Bere eskumenei dagozkien esparruetan, Udalaren Gobernu Organoek eskatutako txostenak eta azterketak egitea.

g) Udal Planeamendurako Aholku Batzordeari dagokion beste edozein funtzio, baldin eta funtzio hori Batzordeko beste organoren bati eman ez bazaio.

*11. artikulua. Idazkaritza.*

1. Aholku Batzordeko idazkaria, Korporazioko idazkaria edo honek eskuordetutako pertsona izango da.

e) Acordar las convocatorias de las sesiones ordinarias y extraordinarias y fijar el orden del día.

f) Canalizar ante el órgano municipal correspondiente todas las peticiones, requerimientos y actuaciones aprobadas por el Pleno del Consejo.

g) Invitar al Pleno del Consejo, y a las sesiones de las comisiones de trabajo que se creen, con voz pero sin voto, a las personas que estimen oportuno, en razón de los temas a tratar.

h) Ejercer las funciones inherentes a la condición de presidente del Consejo.

i) Cuantas otras pudieran serle atribuidas.

3. En las sesiones del Consejo serán competencia del Presidente:

a) Presidir las sesiones, moderar los debates, mantener el orden en el transcurso de la sesión y, en su caso, suspenderlas atendiendo a causas justificadas.

b) Decidir, mediante el voto de calidad, en caso de que se produzca un empate en una votación.

4. La Vicepresidencia corresponderá al Concejal Delegado de Urbanismo, salvo para el supuesto de que la Alcaldía ostente también esta delegación.

En caso de ausencia del mismo, o por delegación expresa, su función será ejercida por un Concejal de la Corporación, miembro del Consejo.

La misión fundamental será la sustitución del presidente en los casos de ausencia en el ejercicio de su cargo, vacante o enfermedad.

*Artículo 10. El Pleno.*

1. El Pleno es el máximo órgano de decisión del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal y estará compuesto por los miembros a que se hace referencia en el artículo 6 del presente reglamento así como por la secretaría del consejo, que asistirá a las reuniones con voz pero sin voto.

2. Al Pleno le corresponde:

a) Elaborar el programa de trabajo del Consejo y establecer prioridad de sus actuaciones.

b) Pronunciarse sobre todos los temas por los cuales se le haya convocado.

c) Informar y asesorar en sus actuaciones a la Corporación Municipal.

d) Aprobar, si procede, el Acta de la Sesión anterior del Pleno y plantear materias y asuntos de interés a incluir en el Orden del Día de la siguiente.

e) Conocer los informes elaborados por órganos específicos, a requerimiento del presidente del Consejo.

f) Emitir informes y realizar los estudios que en el ámbito de sus competencias le sean requeridos por los Órganos de Gobierno Municipal.

g) Cualquier otra función que corresponda al Consejo Asesor del Planeamiento Municipal y no esté atribuida a ningún otro órgano del mismo.

*Artículo 11. La Secretaría.*

1. Será Secretario del Consejo Asesor el Secretario de la Corporación o persona en quien delegue.

2. Idazkaritzak honako funtzio hauek izango ditu, eta Batzordeburuaren zuzendaritzapean arituko da:

a) Plenorako deialdiak egitea, eta horiekin batera azter-gaiak eta aurreko bilerari dagokion akta bidaltzea.

b) Batzordeko Osoko Bilkuretan parte-hartzea, bilkuren akta jasotzea eta lehendakaririekin batera akta horiek sinatzea. Idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez du botoa emateko eskubiderik izango.

c) Artxiboko eta erregistroko lanak egitea eta idazkari karguari berez dagozkion bestelako eginkizunak burutzea.

VI KAPITULUA

UDAL PLANEAMENDURAKO AHOLKU BATZORDEKO KIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

*12. artikulua. Aholku Batzordeko kideen eskubideak.*

Batzordekideen eskubideak honako hauek dira:

a) Osoko Bilkuretan ordezkaritza izatea.

b) Osoko Bilkurak hartutako erabakiak betetzeko egingo diren jarduerei buruzko informazio izatea.

c) Batzordeko aktak eta agiriak eskura izatea.

d) Batzordeari dagokion esparruan, ekimenak eta interesak aurkeztea eta defendatzea.

e) Batzordearen bilkuretan hitzarekin eta botoarekin parte hartzea.

f) Batzordearen bidez, Korporazioko zerbitzuen esku dagoen informazioa eskatzea, informazio hori proposamen bat egiteko beharrezkoa bada.

g) Araudi honen bidez, edo ezar dakiokeen eta indarrean dagoen legediaren bidez, eman dakiokeen beste edozein eskubide.

*13. artikulua. Aholku Batzordeko kideen betebeharrak.*

Batzordekideen betebeharrak honako hauek dira:

a) Osoko Bilkuretan eta interesatzen zaizkien lan batzordeetan parte hartzea. Horretaz gain, hartutako erabakiak betetzeko, Batzordeak bultzatuko dituen jardueretan laguntzea.

b) Batzordearen garapenaren eta sustapenaren alde egitea.

c) Batzordearen baimenik izan gabe, batzordearen izenean ez aritzea.

d) Araudian jasotakoa errespetatzea eta betetzea.

e) Elkarteen eta Taldeen estatutuetan dauden aldaketen berri ematea Udalari; izan ere, aldaketa horiek eragina izan dezakete Udalak bertako kideak izendatzeko dituen irizpideetan.

f) Ordezkaritza duen pertsona aldatzen bada, edo ordezkatzen duen erakundearen edo elkartearen egoitza soziala aldatzen bada, horren berri ematea.

g) Araudi honen bidez, edo ezar daitekeen eta indarrean dagoen legediaren bidez eman daitezkeen gainerako betebeharrak.

2. La Secretaría bajo la dirección de la Presidencia del Consejo ejercerá las siguientes funciones:

a) Cursar las convocatorias del Pleno, acompañando a las mismas el orden del día y el acta correspondiente a la sesión anterior.

b) Asistir, con voz pero sin voto, a las sesiones del pleno del consejo y levantar acta de las mismas y firmarlas junto con el Presidente.

c) Desempeñar las funciones de archivo y registro así como todas las inherentes a su condición.

CAPITULO IV

DERECHOS Y DEBERES DE LOS MIEMBROS DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 12. Derechos de los miembros del Consejo Asesor.*

Son derechos de los miembros del Consejo:

a) Estar representados en los Plenos del Consejo.

b) Recibir información sobre las actividades que se realicen en cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Pleno del Consejo.

c) Tener acceso a las actas y documentación del Consejo.

d) Presentar y defender iniciativas e intereses en el ámbito del Consejo.

e) Participar, con derecho a voz y voto, en las reuniones del Consejo.

f) Solicitar, a través del Consejo, información que obre en poder de los servicios de la Corporación y le sean precisos para desarrollar una propuesta.

g) Cuantos otros pudieran serles atribuidos por este Reglamento o por la legislación vigente que le sea de aplicación.

*Artículo 13. Deberes de los miembros del Consejo Asesor.*

Son deberes de los miembros del Consejo:

a) Participar en las sesiones plenarias y en las comisiones de trabajo en que estén interesados, además de colaborar en las actividades promovidas por el Consejo, en cumplimiento de los acuerdos adoptados.

b) Contribuir al mejor desarrollo y promoción del Consejo.

c) Eludir cualquier tipo de representación del Consejo, sin tener el consentimiento expreso.

d) Respetar y cumplir lo expuesto en el Reglamento.

e) Comunicar al Ayuntamiento, en el caso de Asociaciones, Grupos o Colectivos, los cambios efectuados en sus estatutos, por si este hecho afectara a los criterios de su designación por el pleno municipal.

f) Comunicar los cambios que se produzcan de la persona que ejerce la delegación o del domicilio social de la entidad o asociación a quien represente.

g) Cuantos otros pudieran serles atribuidos por este Reglamento o por la legislación vigente que le sea de aplicación.

## V. KAPITULUA

## JARDUTEKO ARAUBIDEA

*14. artikulua. Bilkurak.*

Aholku Batzordeak, ezinbestean, planeamenduko espedienteren bati buruzko argibideak eman behar dituen bakoitzean, egingo dira Batzordea biltzeko deialdia eta bilera bera, Araudi honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Bilera hori dagokion txostena egin ondoren bukatuko da.

Batzordeak egoki irizten dionean ere egin ahal izango ditu bilerak. Deialdia batzordeburuak egingo du bere kabuz; edo bestela, gutxienez, batzordekideen herenak hala eskatuta.

*15. artikulua. Asistentziaren quoruma.*

1. Bilera egin ahal izateko, eta eztabaidak eta erabakiak baliozkoak izan daitezen, beharrezkoa izango da batzordeburua eta idazkaria, edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonak bertan izatea. Gutxienez, Batzordea osatzen duten kideen erdia ere bertan izan beharko da. Quorum hori bilera guztian zehar mantendu behar izango da.

2. Gehiengo hori lortzen ez bada, Batzordea bigarren deialdian bilduko da; ordu erdi beranduago, batzordekideen herena bertan bada. Hala ere, Batzordeburua eta Idazkaria edo horiek ordezkatzen dituzten pertsonak, nahitaez, bertan egon beharko dira.

*16. artikulua. Deialdia eta bilerak egitea.*

Batzordeak nahitaezko txostena egin behar duen kasuetan, bilera-deia Aurrerakina jendaurrean jarri aurretik egin beharko da; eta Aurrerapenik ez badago hasiera batean onartutako dokumentua jendaurrean jarri aurretik. Halaber, bilera-deia, gutxienez, bilera egin baino hiru lanegun lehenago egin beharko da. Nolanahi ere, deialdiarekin batera, bilerako aztergaiak bidali beharko dira. Aztergaien artean jasotako gaiei buruzko informazioa Batzordea osatzen duten pertsonen esku jarriko da, epe berean.

2. Aztergaien artean jasotzen ez diren gaiak ezin izango dira aztertu, eta ezin izango da horiei buruzko erabakirik hartu. Dena dela, Batzordekide guztiak bertan badaude, eta gaia presa handikoa bada, gaia aztertu ahal izango da. Horretarako, gehiengoak aldeko botoa eman beharko du.

*17. artikulua. Lekua eta Aktak.*

Aholku Batzordearen bilerak Udalaren egoitzetan egingo dira. Bilera bakoitzaren aktak, berriz, hamabost laneguneko epean egingo dira. Akta batzordekideei bidaliko zaie, eta egiten den hurrengo bileran onartuko da.

*18. artikulua. Eztabaidak.*

Batzordeburuak bilerak zuzendu eta eztabaidak antolatuko ditu, eta bilerak behar bezala bideratzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

*19. artikulua. Erabakiak hartzea.*

1. Aholku Batzordearen erabakiak bertaratu diren kideen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da, eta horrela jarraituz gero batzordearen lehendakariak erabakiko du kalitatezko botoaren bidez. Hala ere, boto partikularrak eman ahal izango dira, eta aurka dauden aldeek emandako arrazoiak ere jaso ahal izango dira.

## CAPITULO V

## REGIMEN DE FUNCIONAMIENTO

*Artículo 14. Sesiones.*

1. El Consejo Asesor del Planeamiento se convocará y reunirá siempre que resulte necesario respecto a los expedientes de planeamiento que deban ser informados con carácter preceptivo por el Consejo según lo establecido en el artículo 5 del presente Reglamento. Dicha sesión concluirá con la emisión del informe citado.

2. El Consejo podrá también celebrar sesiones por razones de conveniencia, que serán convocadas por la Presidencia a iniciativa propia o a solicitud de, al menos, la tercera parte del número de miembros del Consejo.

*Artículo 15. Quórum de asistencia.*

1. Para la válida celebración de las sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos será necesaria la presencia de la personas que ostente la Presidencia y la Secretaría o de las personas en quienes deleguen o les sustituyan y de, al menos, la mitad de los miembros del Consejo, quórum que habrá de mantenerse durante toda la sesión.

2. En caso que no se haya logrado la mencionada mayoría, el Consejo se constituirá en segunda convocatoria, media hora más tarde, con la presencia de un tercio de sus miembros, siempre y cuando estén presentes el Presidente y el Secretario del Consejo o las personas en quienes deleguen.

*Artículo 16. Convocatoria y celebración de las sesiones.*

1. La convocatoria de las sesiones en las que el Consejo deba emitir informe preceptivo, deberá realizarse con anterioridad al inicio de la información pública del Avance, o del documento aprobado inicialmente si no existiera Avance, y realizarse siempre con un mínimo de tres días hábiles de antelación a su celebración. A la convocatoria se acompañará en todo caso el orden del día de la sesión. La información sobre los temas que figuren en el orden del día estará a disposición de las personas miembros del Consejo en igual plazo.

2. No podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure incluido en el Orden del Día, salvo que estén presentes todos los miembros del Consejo y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría.

*Artículo 17. Lugar y Actas.*

Las sesiones del Consejo Asesor se celebrarán en dependencias del Ayuntamiento y de cada una de ellas se extenderá acta en el plazo de quince días hábiles por la Secretaría del Consejo, que será remitida a sus miembros y será sometida a aprobación en la siguiente sesión que se celebre.

*Artículo 18. Deliberaciones.*

La Presidencia del Consejo dirigirá las sesiones, ordenará los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden de las reuniones.

*Artículo 19. Adopción de acuerdos.*

1. Los acuerdos del Consejo Asesor se adoptarán por mayoría simple de los miembros asistentes. En caso de empate se efectuará una nueva votación, y de persistir éste, la Presidencia ejercerá el voto de calidad. En todo caso, se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia de las objeciones planteadas por las partes discrepantes.

2. Hartzen diren erabakiak aktan jasoko dira. Akta Batzordeko Idazkariak egingo du, eta aztertu den hirigintzako espedientearen atal bihurtuko da.

*20. artikulua. Lan-batzordeak.*

1. Hirigintzako Planeamenduarekin zerikusia duten gai zehatzak unean-unean aztertzeko, lan-batzordeak sortu ahal izango dira, baldin eta Batzordearen Osoko Bilkuraren gehiengoak hori beharrezkotzat jotzen badu.

2. Aholku Batzordeak zehaztuko du lan- batzorde horien osaera eta funtzionamendua

3. Aztertutako gaien eta hartutako erabakien berri emango diote lan-batzordeek Aholku Batzordeari

*21. artikulua. Baliogabetzea.*

Udal Planeamendurako Aholku Batzordea, Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez deuseztatuko da, indarrean dagoen legediaren arabera.

*Lehenengo xedapen gehigarria.*

Araudi honetan espresuki aurreikusten ez diren kasu guztietan, Udal Planeamendurako Aholku Batzordearen funtzionamendua eta jarduerak honako honen bidez arautuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluaren II. Atala. Horren ordez, kontuan izango dira Toki Araubidearen Oinarriak Onartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubidearen Juridikoaren Araudi onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua.

*Bigarren xedapen gehigarria.*

Batzordeburuak eskumena izango du. Araudi honetan ezarritakoa betetzeko eta garatzeko beharrezkoak diren barne araubideari buruzko arau guztiak emateko.

*Xedapen iragankor bakarra.*

Partaide den Udal Batzordea eratu ez delako, edo partaidea izendatzeko proposamenik egin ez delako, erakunderen edo erakunderen bateko ordezkariren bat izendatzea ezinezkoa izan bada ere, Planeamendurako Aholku Batzordea balio osoz eratuko da.

*Azken xedapena.*

Araudi hau indarrean sartuko da, testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

---

### Isunen Unitatea

*Iragarkia, zigor espediente hauen salaketa jakinarazteko.*

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4 eta 61. Artikuluen arabera (ikus 1992ko azaroaren 27ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 285. Zenbakia), iragarki honen bidez egiten dugu Trafiko, Zirkulazio eta Bide Segurtasun gaietan indarrean dauden arauren bat hautsi izanagatik irekitako zigor espediente hauen jakinarazpena, bestela jakinarazteko eginahalak egin arren ezain izan dugu eta.

Hala, bada, ororen jakinaren gainean jartzen dugu erabakia, interesatuak jakin dezan eta banan-banan jakinarazita bezala hartu dezan. Era berean, jakin beza bi eratara joka dezakeela:

2. Los acuerdos adoptados serán integrados en el acta que se elaborará por la Secretaría del Consejo y que formará parte del expediente urbanístico objeto de análisis.

*Artículo 20. Comisiones de trabajo.*

1. Se podrán constituir comisiones de trabajo para el tratamiento específico de temas puntuales relacionados con el planeamiento urbanístico cuando ello se considere necesario por la mayoría del Plenario del Consejo.

2. La composición y funcionamiento de las comisiones de trabajo serán determinados por el Consejo.

3. Las comisiones de trabajo informarán al Consejo de los temas tratados y de sus conclusiones.

*Artículo 21. Disolución.*

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se disolverá conforme a la legislación en vigor por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento.

*Disposición adicional primera.*

En todo lo no previsto expresamente en este Reglamento, el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se regirá, en cuanto a su régimen de funcionamiento y actuación, por lo dispuesto en el capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común. Supletoriamente, se estará a lo establecido en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, que aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

*Disposición adicional segunda.*

Se faculta a la Presidencia del Consejo para dictar cuantas normas de régimen interior sean necesarias para la aplicación y desarrollo de lo establecido en el presente Reglamento.

*Disposición transitoria única.*

El Consejo Asesor del Planeamiento quedará válidamente constituido aun cuando alguno o algunas de las personas representantes de Asociaciones o entidades no haya podido ser nombrada por no haberse constituido el Consejo municipal en el que participa o no existiere propuesta de nombramiento.

*Disposición final.*

El presente Reglamento entrará en vigor al día siguiente de la publicación de su texto integro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

---

### Unidad de Multas

*Anuncio por el que se notifica la denuncia de los siguientes expedientes sancionadores.*

De conformidad con lo establecido en los artículos 59.4 y 61 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (*Boletín Oficial del Estado* n.º 285, de 27 de noviembre de 1992) se realiza la notificación mediante este anuncio al haber intentado sin efecto la notificación de la incoación de los procedimientos sancionadores que se relacionan por infracción a la normativa vigente en materia de Tráfico, Circulación y Seguridad Vial.

Lo que se hace público para conocimiento de los interesados a quienes debe servir de notificación individual pudiendo proceder del siguiente modo: